

Musika

Lore bila zaramaontzian

IGOR KRUTZAGA

Nazioarteko uhinak iritsi dira gurera, askoz bits gutxiagorekin bada ere. Zaramaren itzulerak erakutsi digu aspaldiko taldeak berpizteko moda ez dela atzerrikoa bakarrik. Alde handia dago kanpoko eta etxekoen artean, baina.

UNAI BREA



Zarama taldea,
gaur egun.

HAMALAU URTE DIRA Zaramak azken kontzertua, edo ustez azkenekoa izango zena, eskaini zuela Santurtzi sorterrian, Ibilaldia han egin zela baliatuz. Behin betikoa zirudiena ez da hala suertatu ordea. Oraindik orain Bermeon emandako kontzertuarekin, Euskal Herrian barnako bira txikia hasi du Ezkerraldeko talde mitikoak, kide guztiak 50 urteren bueltan dabiltzala. Euren asmoa lau kontzertu eskaini eta etxera bueltatzea da, baina behin harra gosetzen hasita, auskalo.

Zaramaren itzulerak *déjà vu* halako bat sorrarazi digu ezinbestean. Nazioartean, agortzen ari den hamarkada honek aspaldiko talde handi askoren buelta ekarri digu, kasu batzuetan kontzertu pare bat besterik ez emateko, bestetan asmo handiagoekin. Hemerrotekan aleak biltzen hasi eta rockaren *Hall of fame* bat osatzeko moduko izen zerrenda agertzen zaigu: The Police, The Who, The Doors, Led Zeppelin, Sex Pistols, Genesis, Van Halen... Zaramarekin konparazioa nekez egin dezakegu ordea.

Santurtzikoen eta, esate baterako, Led Zeppelin arteko aldea dirutan neurtzen da: Britainia handiko *The Sun* egunkariaren arabera, hamabi milioi eta erdi dolarrek konbentzitu zituzten zeppelindarrak Londresen kontzertu bakarra emateko, 2007ko abenduan. Kostatzen da sinestea diru premian ibiliko zirenik, musikaren historian, The Beatles-en atzetik, disko gehien saldu duen taldeko kide izanda, baina negozioa negozioa da.

Euskal Herrian aldiz, musika musika baino ez da, negoziotik gutxi dauka. Horrek eraman du Pedro Elias Igartua aditua itzulera batzuen eta besteen zintzotasuna erkatzerara: "Aspaldiko partez elkartzen diren talde batzuen kasua engainu hutsa da, eta hala da talde horretako burua hilda badago, edo besterik gabe ez bada besteekin batera bueltatzea. Traizio txikia iruditzen zait, ez hilda dagoenari, entzuleei bai-zik". Beste batzuetan, elkar ikusi ezin dutenak berriz elkartzen dira taldea berpiz-



Ekzerretik eskumara, Led Zeppelin, The Doors eta Sex Pistols talde mitikoen irudi zaharrak. Hirurek egin dituzte itzulera saioak azken urteotan, beti ere hasierako kideren bat hilda dagoela.

teko, eta hori ere nolabaiteko amarrua da Igartuaren ustez. The Police banatu aurretik egindako azken biran, Sting-ek eta Stewart Copeland bateria-jotzaileak ukabilkataka amaitu zuten. Elkar jo eta gero, elkarrekin berriz joko ez zutela iragarri zuten, noski. Denborak zauriak sendatzen ditu baina, eta errazago euro mordoa jartzzen bada infekzioa arintze aldera. Hala, 2007an bira egin zuten mundu osoan zehar. Sarrerak barra-barra saldu zituzten, erreptorian betiko kantuak besterik ez zituzten arren. “Oro har, urte asko igaro eta gero elkartzeko den talde batengandik ezin da gauza handirik espero”, horra Pedro Elias Igartuaren sententzia.

Euskal Herriko adibideetan, berriz, zintzotasun handiagoa sumatzen du Igartuak. Zarama elkartzea? Primeran. Gakoa da argi uztea zer itxaron dezakeen entzuleak. Alde horretatik, Roberto Mosok eta konpainiak argi daukate: ez dute kerik saltzen, eta sarrerak, The Police-k baino askoz gutxiago. “Gure kontzertuetara datozenek Zaramaren *greatest hits*-en bilduma aurkituko dute, eta baita berriz jo nahi genituen zenbait ale”, diosku Mosok. Hauek ere erreptorioan berrikuntzarik ez. Baina soinua desberdina izango dela iragarri du taldeko liderrak. Gitarra baten faltan –ez dute ordezko musikaririk kontratatu nahi izan,

nostalgia ez da partekatzen–, organoak beteko du haren hutsa. “Lehengo kantuen bertsioak joko ditugu, baina gehien-gehienak ezagutzeko modukoak izango dira gure aspaldiko jarraitzaileentzat”. Inkognita da –Bermeoko kontzertua baino lehenago idatzita baitago hau– ea aspaldiko jarraitzaile horiek izango diren oraingo jarraitzaileak ere, edo belaunaldi berriek hartuko duten lekukoa.

Atzerriari dagokionez behintzat, itzulera sukar hau ulertzeko gakoa *business*-a da, ados. Baina hain kritikatzekoa da hori? Igartuak berak onartu du naturala dela, herrialde anglosaxoieta, musikariak etengabe banatu eta elkartzea, besterik gabe horretaz bizi diren profesionalak direlako. Berriki itzuli den beste batek, Toño Muro nafarrak, normalizat jotzen du fenomeno hori, baita talde batek hamarkadak irautea ere, “Euskal Herrian ez dauden zirkuituak badaudelako atzerrian”. Bide batez esateko, Murok Balerdi Erdi taldea sortu du, Balerdi Balerdiko beste kide batzuekin batera. Izenean argi utzi nahi izan dute gaurkoa ez dela atzokoa. Beste batzuek ez dute hain garbi jokatzeko. Nola saldu liteke The Doors itzuli dela Jim Morrison gabe? Hori da kritikatu daitekeena. Musika egiten segitu nahi izatea, 50 urteak gaudituta ere, guztiz zilegi da. ■

